



### *Fitxa teknikoa*

*Puntan punta bat* (Haur folkloreaken bilduma). Xabier Etxaniz Erle. Pamiela. Iruñea, 2009.

### *Liburuaren Aurkezpena*

Tituluak argi eta garbi azaltzen du liburuaren zera: tradiziozko haur literaturaren lagin bat ekartzen digu geletan edota etxeetan tradiziozko poesiaz gozatzeko. Esaera zaharrak, zotz egiteko formulak, ahokorapiloak, eta era askotako jolasak eta kanta proposamenak ekartzen dizkigu hizpidera.

Bilduman tradiziozko egituren aukeraketa bat dago, XIX eta XX. mendeko biltzaile nagusiek jasotako materialak kontutan hartuta osatzen da liburuan aurkezten dena. Tradiziozko haur poesiak eskaintzen dituen baliabideak azaltzen dira liburuan, hizkuntz trebetasunen eta haurren garapen fisiko eta intelektualaren testigu eta suspertzaile.

Liburu honen lehen edizioa 1986koa da eta orduz gero argitalpen ugari izan baditu ere, bigarren edizio hau kaleratu berri dute, erreparatu ondoren. Denbora tarte guzti honetan, gaiarekiko pertzepzioa aldatu egin dela bistakoa da eta, ikasgeletan, etxean eta kalean erabiltzeko tresna baliotsua eskaintzen digu berrargitalpen honek.

Haur folkloreaken erabilpenari begiratzen badiogu, Bularretik Mintzora egitasmoak ahalegin handia egin du erabilpen hau ikasgeletan, etxean eta bibliotekan sistematizatzen. Baliabideak sortzean eta hauek denak grabatzean, idatziari soinua erantsi dio eta poemari jokoak josi, haren erabilpenaren ereduak eskaintzeko.



Bularretik Mintzorak proposatutako egituren eta liburu honek proposatutakoen artean egitura kointzidentzia asko aurkituko ditugu. Izan ere iturri berdinak erabili dira bi kasuetan. Baina liburu honek irakasleei Bularretik Mintzoraren baitan eskaintzen zaien proposamenez gain, beste hainbeste eskaintzen ditu erabilpen eskema berdinean kokatuz, irakaslearen praktika aberasteko.

### ***Proposamenak***

Egitura bakoitzari bere jolasa erantsi behar zaio: atzamarrak kontatu, txaloak egin, zotz egin; korroan jolastu; trostan ibili...

Poemen ahoskamena erabaki ondoren, ozen irakurri edota errezipatu.

Grabazioak egin, beste geletan edota irratiko emanaldian eskaintzeko.